EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
2024 MAR. 27
SARRERA Zk. — | IRTEERA Zk. 115552

Datuak Babesteko Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de Protección de Datos
5 ABR 2024
Nº 551/0206 Zkia.
SARRERA - ENTRADA

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTZARITZA
Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71, 3º
01008-VITORIA-GASTEIZ
***Attn.: Unai Aberasturi Gorriño***

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 27a

Honekin batera doakizu Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Auditoria Zerbitzuak DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAren 2023ko abenduaren 31n itxitako urteko kontuei buruzko Auditoria Txostenaren ale bat eta aldi berean aipatutako kontuak.

Adjunto se remite un ejemplar del Informe de auditoría emitido por el Servicio de Auditoría de la Oficina de Control Económico del Departamento de Economía y Hacienda, sobre las cuentas anuales al 31 de diciembre de 2023 de la AUTORIDAD VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS que también se adjuntan.

Adeitasunez,

Atentamente,

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
Kontrol Ekonomikoko Bulegoa
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
Oficina de Control Económico

Javier Losa Ziganda
KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOKO ZUZENDARIA

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 89 78 – Fax 945 01 90 20 – e-mail Hac-Oce@euskadi.eus

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

# DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZA
# AUTORIDAD VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS

## AUDITORIA TXOSTENA ETA URTEKO KONTUAK
## INFORME DE AUDITORIA Y CUENTAS ANUALES

## EJERCICIO 2023KO EKITALDIA

# Auditore publiko batek egindako urteko kontuen auditoria-txostena

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Lehendakariarentzat:

## Iritzia

Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Auditoria Zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak ematen dizkion eskumenak gauzatu ondoren, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren ("Erakundea") atxikitako urteko kontuak ikuskatu ditu. Urteko kontu horiek 2023ko abenduaren 31ko balantzea eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion emaitza ekonomikoko eta patrimonialaren kontua, ondare garbian gertatutako aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta memoria biltzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek behar bezala adierazten dute, alderdi esanguratsu guztietan, Erakundearen 2023ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zehatza, baita data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzena eta eskudiru-fluxuena ere, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearekin (memoriaren 6.3 oharrean identifikatzen da) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorriz.

## Iritzia emateko oinarria

Gure auditoria, Espainian sektore publikoarentzat indarrean dagoen kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen araudiaren arabera egin dugu. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatuko dira, gure txostenaren *Auditoriaren erantzukizunak, urteko kontuen auditoriari dagokionez* atalean.

Espainian sektore publikoari urteko kontuen gure auditoriari aplikatzekoak zaizkion etika eta independentzia babesteko errekerimenduekin bat etorriz, ez dugu loturarik Erakundearekin, sektore publiko horren auditoriako jardueraren araudi erregulatzaileak eskatu bezala.

# Informe de Auditoría de Cuentas Anuales emitido por un Auditor Público

Al Presidente de la Autoridad Vasca de Protección de Datos:

## Opinión

La Oficina de Control Económico, a través del Servicio de Auditoría y en uso de las competencias que le atribuye el Decreto Legislativo 2/2017 de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, ha auditado las cuentas anuales de la Autoridad Vasca de Protección de Datos ("la Entidad"), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2023, la cuenta del resultado económico patrimonial, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo, el estado de liquidación del presupuesto y la memoria correspondiente al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2023, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 6.3 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

## Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente para el sector público en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales* de nuestro informe.

Somos independientes de la Entidad de conformidad con los requerimientos de ética, y protección de la independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales para el Sector Público en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas de dicho Sector Público.

Gure ustez, lortu dugun auditoriako ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du auditoriako gure iritzia emateko.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

## Auditoriaren funtsezko gaiak

Auditoriaren funtsezko gaiak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo aldiaren urteko kontuen gure auditorian esanguratsuenak izan direnak. Gai horiek urteko kontuen gure auditoriaren testuinguruan —osotasunean hartuta— eta kontu horien inguruko gure iritzia osatzean aztertu dira, eta gai horiei buruzko iritzia ez dugu bereizita ematen.

Egindako lana oinarri hartuta, gure txostenean jakinarazi behar diren eta auditorian kontuan hartzen diren funtsezko gaiak sortzen dituzten arrisku esanguratsuagorik ez dagoela erabaki dugu.

## Cuestiones clave de la auditoría

Las cuestiones claves de auditoría son aquellas cuestiones que, según nuestro juicio profesional, han sido de la mayor significatividad en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estas cuestiones han sido tratadas en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstas, y no expresamos una opinión por separado sobre esas cuestiones.

Sobre la base del trabajo realizado, hemos determinado que no existen riesgos más significativos que generen cuestiones claves considerados en la auditoría que se deban comunicar en nuestro informe.

## Bestelako informazioa: Helburuen betetze-mailari buruzko memoria

Bestelako informazioan 2023 urteko ekitaldiaren helburuen betetze-mailari buruzko memoria baino ez da biltzen. Txosten hori egiteko ardura Erakundeko Lehendakariarena da eta ez da urteko kontuetan sartzen.

Urteko kontuei buruzko gure auditoria iritziak ez du helburuen betetze-mailari buruzko memoria barne hartzen. Auditoriako jarduera erregulatzen duen araudian eskatutakoaren arabera, helburuen betetze-mailari buruzko memoriari buruzko gure erantzukizuna honako hau da: helburuen betetze-mailari buruzko memoria eta urteko kontuak bat ote datozen ebaluatzea eta jakinaraztea. Hori guztia, kontu horien auditoria egitean —eta bertan ebidentzia gisa jasotakoa ez den informazioa barne hartu gabe— eskuratutako Erakundearen ezagutzan oinarrituta gauzatuko da. Halaber, gure ardura da helburuen betetze-mailari buruzko memoriaren edukia eta aurkezpena aplikatzekoa den araudiarekin bat ote datozen ebaluatzea eta jakinaraztea. Egin dugun lanean oinarrituta, huts materialak daudela ondorioztatzen badugu, horren berri ematera behartuak gaude.

Egindako lanean oinarrituta, aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera, ez dugu ezer informatzeko. Helburuen betetze-mailari buruzko memorian bildutako informazioa 2023ko ekitaldiko urteko kontuen informazioarekin bat dator, eta bere

## Otra información: Memoria de cumplimiento de los objetivos

La otra información comprende exclusivamente la memoria de cumplimiento de los objetivos del ejercicio 2023 cuya formulación es responsabilidad del Presidente de la Entidad, y no forma parte integrante de las cuentas anuales.

Nuestra opinión de auditoría sobre las cuentas anuales no cubre la memoria de cumplimiento de los objetivos. Nuestra responsabilidad sobre la memoria de cumplimiento de los objetivos, de conformidad con lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas, consiste en evaluar e informar sobre la concordancia de la memoria de cumplimiento de objetivos con las cuentas anuales, a partir del conocimiento de la Entidad obtenido en la realización de la auditoría de las citadas cuentas y sin incluir información distinta de la obtenida como evidencia durante la misma. Asimismo, nuestra responsabilidad consiste en evaluar e informar de si el contenido y presentación de la memoria de cumplimiento de los objetivos son conformes a la normativa que resulta de aplicación. Si, basándonos en el trabajo que hemos realizado, concluimos que existen incorrecciones materiales, estamos obligados a informar de ello.

Sobre la base del trabajo realizado, según lo descrito en el párrafo anterior, no tenemos nada que informar. La información que contiene la memoria de cumplimiento de los objetivos concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2023 y su contenido

edukiak eta aurkezpenak aplikatzekoa den araudia betetzen dute.

y presentación son conformes a la normativa que resulta de aplicación.

## Lehendakariaren erantzukizunak urteko kontuei dagokienez

Lehendakariari dagokio erantsitako urteko kontuak formulatzeko erantzukizuna, Erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza adierazteko, Espainian aplikatzekoa den finantza-informazioaren esparru arauemailearekin bat etorriz. Haren erantzukizunpekoa da, orobat, urteko kontuak iruzurraren edo akatsaren ondoriozko huts materialik gabe prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrola.

Urteko kontuen prestaketan, Erakundeak enpresa gisa funtzionatzen jarraitzeko duen gaitasuna baloratzeko erantzukizuna du Lehendakariak. Horretarako, eta hala badagokio, funtzionatzen ari den enpresarekin lotutako gaiak jakinaraziko ditu eta funtzionatzen ari den enpresako kontabilitate-printzipioa erabiliko du, administratzaileek Erakundea likidatzeko edo beren eragiketekin aurrera ez jarraitzeko asmoa duten kasuetan edo beste aukerarik ez dagoen kasuan izan ezik.

## Responsabilidades del Presidente en relación con las cuentas anuales

El Presidente es responsable de formular las cuentas anuales adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Entidad, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la Entidad en España y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales, el Presidente es responsable de la valoración de la capacidad de la Entidad para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los administradores tienen intención de liquidar la Entidad o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

## Auditoriaren erantzukizunak, urteko kontuen auditoriari dagokionez

Gure helburuak honako hauek dira: iruzurraren edo akatsaren ondorioz urteko kontuek, oro har, oker materialik ez duten arrazoizko ziurtasuna lortzea, eta gure iritzia bilduko duen auditoriako txosten bat egitea. Arrazoizko ziurtasunak ziurtasun handia erakusten du. Hala ere, Espainian indarrean dagoen sektore publikorako auditoriako jarduera erregulatzen duen araudiarekin bat etorrita egindako auditoria batek edozein oker material —halakorik baldin badago— hautemango duela ez du bermatzen. Okerrak iruzur edo akats baten ondorioz gerta daitezke, eta oker materialtzat jotzen dira, bakarka edo erantsita, urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragiten dutela aurreikus badaiteke.

Espainian sektore publikorako indarrean dagoen auditoriako jarduera erregulatzen duen araudiaren araberako auditoria baten zati gisa, gure judizio profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoria osoan zehar. Gainera:

## Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión. Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas para el Sector Público vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente para el Sector Público en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

• Iruzurraren edo akatsaren ondorioz, urteko kontuetan oker materialen arriskuak identifikatzen eta baloratzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoriako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu, eta gure iritzirako oinarri bat emateko auditoriako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzur baten ondorioz oker material bat ez hautemateko arriskua akats baten ondorioz oker material bat ez hautematekoa baino handiagoa da; izan ere, iruzurrak kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, nahita oker egindako adierazpenak edo barne-kontrola saihestea berekin loturik eduki ditzakeelako.

• Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.

• Auditoria egiteko barne-kontrolaren inguruko ezagutza garrantzitsuak eskuratzen ditugu, egoeren arabera egokiak izango diren auditoriako prozedurak diseinatzeko, eta ez, ordea, Erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emateko.

• Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la Entidad.

• Aplikatutako kontabilitateko politikak egokiak diren eta kontabilitate-zenbatespenak arrazoizkoak diren ebaluatzen dugu, baita gaiarekin lotuta Lehendakariak emandako informazioa ere.

• Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por el Presidente.

• Funtzionatzen ari den enpresa baten kontabilitate-printzipioa Lehendakariak erabiltzea egokia ote den erabakitzen dugu. Era horretan, lortutako auditoriako ebidentzian oinarrituta, funtzionatzen ari den enpresa gisa jarraitzeko Erakundearen ahalmenari buruzko zalantza garrantzitsuak eragin ditzaketen gertakariekin edo baldintzekin lotutako zalantza material bat dagoen ala ez ondorioztatzen dugu. Zalantza materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoriako txostenean urteko kontuetan jakinarazitako informazioaren inguruan ohartarazi beharko dugu; halaber, jakinarazte horiek egokiak ez badira, iritzi aldatua eman beharko dugu. Gure ondorioak gure auditoriako txostena egin den datara arte eskuratutako auditoriako ebidentzian oinarrituta daude. Hala ere, Erakundea funtzionatzen ari den enpresa bat izateari uzteko kausa izan daitezke etorkizunean azalduko diren baldintzak edo gertakariak.

• Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por el Presidente, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Entidad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Entidad deje de ser una empresa en funcionamiento.

• Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia -jakinarazitako informazioa barne- ebaluatzen ditugu. Halaber, urteko kontuek azpian diren gertakariak eta transakzioak irudikatzen dituzten - irudi zehatza adieraztea lortuz- ere ebaluatzen dugu.

• Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Erakundeko Lehendakariarekin harremanetan jarri ginen, besteak beste, planifikatutako auditoriaren irismena eta auditoria hori egiteko unea zehazteko, eta auditorian aurkitutako gertakari azpimarragarrien

Nos comunicamos con el Presidente de la Entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificada y los hallazgos significativos de la auditoría, así como

inguruko gaiak aipatzeko, baita auditorian zehar aurkitu genuen barne-kontroleko edozein huts azpimarragarri adierazteko ere.

Erakundeko Lehendakariari jakinarazi dizkiogun gaien artean, aldi honetako urteko kontuen auditorian garrantzi handiena izan dutenak zehaztu ditugu, ustez horiek baitira auditoriako gai funtsezkoenak.

cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre las cuestiones que han sido objeto de comunicación al Presidente de la Entidad, determinamos las que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales del periodo actual y que son, en consecuencia, las cuestiones claves de auditoría.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 26a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
Kontrol Ekonomikoko Bulegoa
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
Oficina de Control Económico

Javier Losa Ziganda
KONTROL EKONOMIKOKO
BULEGOKO ZUZENDARIA